



78/2024 EBAZPENA, FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ BIDERATZEN BAITA AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN JARDUNAREN EBALUAZIOA ETA KARRERA PROFESIONAL HORIZONTALA ERREGULATUKO DUEN DEKRETU-PROIEKTUA EGITEARI BURUZKOA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen du kontsulta publiko bat bideratuko dela arau-xedapenaren proiektua egin aurretik. Konstituzio Auzitegiaren maiatzaren 24ko 55/2018 Epaia artikulua horren gainerakoa eskumenen ordena konstituzionalaren aurkako zela deklaratu zuen, eta, ondorioz, ezin zitzaizkien autonomia-erkidegoei aplikatu.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 11. artikuluan garatu du herritarrei egingo zaien alde aurretiko kontsultaren prozedura eta edukia:

- Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritza-zentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako alde aurretiko kontsulta-izapide horretan, behar diren neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarteen parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio alde aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, administrazioko langile zein herritarra izan.*
- Alde aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako molde egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.*
- Alde aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: araua onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.*

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan bideratzen ari dena, aurreikusitako lege-eskemari jarraikiz.

Egin nahi den dekretu-proiektuaren xedeari dagokionez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak EAeko administrazio publikoak behartzen ditu beren langileen jarduna ebaluatzeko sistemak ezartzera, eta, era berean, xedatzen du administrazioek karrera profesional horizontaleko sistemak ezarri ahal izatea, hau da, gradu



profesionalean aurrera egitea, lanpostuz aldatzeko beharrik gabe. Aplikatu eta abian jartzeko, nahitaezkoa da hainbat alderdi erregelamenduz garatzea. Alderdi horiek ebazpen honekin batera doan eranskinean daude zehaztuta eta justifikatuta.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. - Zuzendari publiko profesionalen araubide juridikoa erregulatuko duen dekretu-proiektua aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen mende jartzea.

Bigarrena. - Ebazpen hau eta bere eranskina Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzea, eta arauaren eraginpeko herritarrak eta erakundeak espresuki gonbidatzea ebazpen honen eranskinean planteatutako alderdiei buruz dituzten iritzia helaraztera, hogeit egun balioduneko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Era berean, informazio bera ikusgai egongo da Legegunean, eta Gobernu Irekiaren plataformara —Ireki— eramango da.

JUAN M^a BARASORDA GOICOCHEA

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARIA

ERANSKINA: EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO LANGILEEN JARDUNAREN EBALUAZIOA ETA
KARRERA PROFESIONAL HORIZONTALA ERREGULATUKO DUEN DEKRETU-PROIEKTUA
EGITEKO AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA

1.- Ekimen arauemaile honen bidez konpondu nahi diren arazoak.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea egin zenetik, funtsezko elementu gisa ezarri zen enplegatu publikoen jardunaren ebaluazioa egitea. Ebaluazio hori administrazio publikoek ezarri behar zuten, berdintasunaren, objektibotasunaren eta gardentasunaren printzipioetan oinarritutako prozeduren bidez.

Lege horrek karrerako funtzionarioen karrera horizontala erregulatzeko baimena ematen zien horien estatutua garatzeko ematen diren funtzio publikoari buruzko legeei. Legeon ezarpenak baldintza hau zuen: lege autonomikoak indarrean jartzea.

Xedapen horiek berretsi egin ziren Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Lege berriak, zioen azalpenetik, adierazten du berritzaileenak izan daitezkeen elementuak aktibatu nahi dituela, eta, zehazki, karrera profesionala eta jardunaren ebaluazioa aipatzen ditu. Bien funtsezko alderdiak definitzen dira, baina haiek benetan ezartzea erregelamenduzko garapenaren mende geratzen da.

Horretarako, lege berriak tarte zabalak utzi ditu bere eremuan sartzen den administrazio publiko orok erabakiak hartu ahal izan ditzan, betiere negoziazio kolektiboak enplegu publikoan duen tarte eta legeak definitu dituen elementu komunak errespetatuta, haietako bakoitzaren premiak konpontze aldera, alde batera utzi gabe enplegu publikoaren eredu erkidea taxutzea, bere osoan.

Hala, 11/2022 Legearen 1.3 artikulua ezartzen duenez, EAEko enplegu publikoaren erregulazioa eta hura osatzen duten langileen araubide juridikoa bertan jasotako xedapenek eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenek definitzen dute.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Lege horren 9. artikulua ahala ematen dio erregelamenduak egin ditzan, EAEko administrazio publikoaren organo erkidea den aldetik, enplegu publikoaren arautzen duten legeak garatzeko, bai eta Legeari erreserbatuta ez dauden gaietan ere. Era berean, azken xedapenetako bigarrenak arauak emateko gaikuntza bat ezartzen du, eta horren bidez, enplegatu publikoen araubide juridikoari buruz lege-erreserbaren xede diren gaietan salbu, Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hori garatzeko beharrezkotzat jotzen diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Halaber, Eusko Jaurlaritza organo erkidea da, baldin eta lege horrek berriaz xedatzen badu EAEko administrazio publiko guztiei aplikatu beharreko erregelamendu-mailako arauak eman daitezkeela.

Alde batetik, jardunaren ebaluazioa (54. artikulua) EAEko administrazio publiko guztietan ezarri behar da, eta, gainera, 7. artikulua arabera, EAEko sektore publikoko edozein erakundetan zerbitzua ematen duten langile guztiei aplikatuko zaie. Baina, legeak berriaz eskatzen du *EAEko administrazio publikoek erregelamendu bidez garatu dezatela, Enplegu*

Publikoa Koordinatzeko Euskadiko Batzordearen irizpideen arabera eta langileen ordezkartzarekin negoziatu ondoren.

Bestalde, 88. artikulua, karrera profesional horizontalari buruzkoak, honako hau xedatzen du: *Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak, bat etorrita Enplegu Publikoa Koordinatzeko Euskadiko Batzordeak horretarako ezartzen dituen irizpideekin, eta alde aurretik negoziatuta langileen ordezkartzarekin, erregelamendu bat prestatuko du garapen profesionalari eta jardunaren ebaluazioari buruz, EAEko administrazio publiko guztietan gai horren inguruan aplikatu behar diren oinarritzko irizpideak jasoko dituena.*

Alde horretatik, dekretu-proiektu honen bidez arautu nahi dira bai EAEko administrazioen jarduna ebaluatzeko eta karrera profesionalaren sistema guztien oinarritzko irizpideak eta irizpide komunak, bai horien garapen integrala Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean.

Azken batean, dekretu-proiektuaren ekimen honekin konpondu nahi den arazo nagusia da EAEko sektore publikoko langileen jarduna ebaluatzeko sistemak eta karrera profesional horizontalaren sistemak benetan ezartzea.

2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna.

EAEko enplegu publikoaren erakunde-kalitatea hobetzea izan da Euskal Enpleguari buruzko Lege berria garatzeko erreferenteetako bat. Lege horren azken helburua da oinarritzko berrikuntza-elementuak txertatzea, enplegu publikoa izan dadin profesionaltasun-maila handiko instituzio bat, inpartziala eta arduratsua, emaitzen kudeaketa kontuan hartuta.

Zerbitzu publikoak modernizatzeko eta haien kalitatea hobetzeko helburu horiek guztiak ezin dira lortu administrazioaren aktibo nagusia (giza kapitala) ez bada behar bezala kudeatzen.

Administrazio publikoen zerbitzura dagoen enpleguaren kudeaketa hobetzeko, zalantzarik gabe, politika koherenteak eta arrazionalak izan behar dira, hala langileak kudeatzeko tresna eraginkorrak, nola jardunaren ebaluazioa eta karrera profesional horizontala.

Azken batean, erregelamendu-garapen honi ekin behar zaio, eta ez soilik legeak berriaz eskatzen duelako, baizik eta gure administrazioen kudeaketa eta efizientzia hobetzen eta modernizatzen lagunduko duten tresnak benetan ezartzea ahalbidetzen duelako, bai eta haren zerbitzura dauden langileen lana behar bezala aztertzen duelako ere.

3.- Egin nahi den arau-proiektuaren xedeak.

Helburu nagusia da enplegu publikoaren legeetan diseinatutako prozesua eta eredia burutzea. Horretarako, EAEko sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen jarduna ebaluatzeko eta karrera profesional horizontalaren sistemak benetan ezartzea ahalbidetu behar du.

Zehazkiago, hiru helburu espezifiko daude:

1. EAEko administrazio publiko guztietan garapen profesionalari eta jardunaren ebaluazioari buruz aplikatu beharreko oinarritzko irizpideak ezartzea.

2. Karrera profesionaleko erregelamendu-ereduak lortzea, errazagoa izan dadin enplegatu publikoak administrazio artean mugitzea eta administrazioek garapen profesionaleko graduak elkarri aitortzea.
3. Garapen-araudia ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esparruan jardunaren ebaluazioa eta karrera profesional horizontala benetan ezarri eta aplikatzeko.
4. Ordainsari osagarriak jasotzeko modua arautzea:
 - a. Karrera profesionaleko osagarria, funtzionarioen aurrerabide profesionala sarituko duena, EAEko administrazio publikoetan karrera profesionalaren sistema egituratzen duten lanbide-garapeneko graduen arabera.
 - b. Kudeaketa- edo produktibitate-emaizengatikiko osagarria, enplegatu publikoek lanpostuan izandako errendimendu berezia, ohiz kanpoko jarduera eta interesa edo ekimena sarituko dituena. Aldakorra izango da, epe bakoitzerako zehaztutako helburuen betetze-mailaren arabera.

4.- Bestelako aukera arautzaileak eta ez-arautzaileak.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak arlo horretako erregelamenduzko garapena eskatzen du, eta desberdindu egiten ditu EAEko sektore publiko osoan jardunaren ebaluazioa nahitaez ezartzea eta administrazio bakoitzak karrera profesional horizontaleko sistemak ezartzea.

Legeak foru- eta toki-administrazioen autonomia bermatzen du, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatearena ere, zeinek bere karrera profesionaleko ereduak garatu ditzan, baina, aldi berean, eskatzen du EAEko administrazio publiko guztiei aplikatu beharreko oinarrizko irizpide batzuk eta administrazioen arteko mugikortasuna eta garapen profesionaleko graduak elkarri aitortzea erraztuko duten erregelamendu-ereduak adosteko.

Ondorioz, administrazio guztientzat komunak izango diren elementuak noraino iristen diren edo noraino iritsi behar duten zehazteak sistema homogeneoagoa edo ez hain homogeneoa izatea eragingo du.

A. Jardunaren ebaluazioa

Jardunaren ebaluazioak bi alderdi baloratu behar ditu: jokabide profesionala, batetik, eta errendimendua edo emaitzen lorpena, bestetik. Esparru orokor horretan, ezaugarri eta irizpide zehatzak zehaztuko dira, betiere jarduna ardatz dela: lana egiteko zuzenean eskatzen diren jokabideak. Neurriak objektiboa, behatzeko modukoa eta neurgarria izan behar du, lanpostuan garrantzitsuak diren eta langilearen mende dauden lan-jokabideen bidez (egiazta daitezkeen ebidentzien erregistroa).

Araudiak zehaztu behar ditu jardunaren ebaluazioak zer ondorio izango dituen honakoetan: karrera profesionala, barne-sustapena, lanpostuak betetzea eta enplegatuen ordainsari osagarriak.

Halaber, ordainsari osagarriak jasotzeko aukera arautuko du: karrera profesionaleko osagarria eta emaitzengatikiko osagarria eta ebaluazio-prozedura, ebaluatzailearen eta ebaluazio-batzorde teknikoaren figurak barne.

B. Karrera profesional horizontala

Ezartzea aukera bat da EAEko administrazioentzat, baina, ezartzekotan, interesdunaren merezimenduen ebaluazioa aldekoa izan beharko da beti, hau da, karreran aurrera egin ahal izateko, jardunaren ebaluazioa beharko da.

Karrera profesional horizontala garapen profesionaleko graduen sekuentzia ordenatu baten bidez egituratzen da. Gradu horiek EAEko administrazio publikoek karrerako funtzionario bakoitzari aitortu ahal izango dizkiote. Hurrengo mailara iristeko behar diren graduen kopurua etaaldiak berdinak izan beharko lirateke EAEko administrazio guztientzat.

Garapen profesionalaren graduak aitortu eta onartu egiten du funtzionarioaren hazkunde profesionala, eta, hala badagokio, gaitu egiten du EAEko administrazio publikoetan lanpostu bat edo batzuk betetzeko.

EAEko administrazio publikoetako lanpostuek zehaztu ahal izango dute zein garapen profesionaleko gradu balora daitezkeen merezimendu gisa.

Karrerako funtzionarioen karrera profesionala dagokien taldeko edo azpitaldeko gutxieneko garapen profesionaleko graduan edo mailan hasiko da. Dena den, salbuespenak planteatu ahal izango dira administrazioan denbora luzez jardun duten funtzionarioentzat.

Garapen profesionaleko gradua igotzean, beti, hurrengo mailara igoko da, sailkapen-talde edo -azpitalde bakoitzean zehazten den maila-tartearen barruan.